



URTE SABATIKOA

Sinatu berri dugun Lan Hitzarmenean adierazi genuen bezala, lortutako neurri garrantzitsuenetarikoa partzialki ordaindutako baimenarena da (urte sabatikoa). Baimen hau langile finkoentzat da eta honetan oinarritzen da: 4 urtez lanaldiaren %100a eginez, %84a kobratu eta kotizatuko da, eta 5. urtean ez da lanik egingo, baina %84a kobratu eta kotizatzen jarraituko da.

Eskaera egiteko epea ekainaren 15ean bukatuko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, **gurekin kontaktuan jarri** edota EHAA kontsultatu (04/01/22).